



#### FINGERNAILS (AZKAZALAK) • AEB

Christos Nikou (zuzendaria, gidoigilea, ekoizlea)

# Maiteminduta egoteari buruzko komedia distopikoa

SERGIO BASURKO

Christos Nikouren *Fingernails* zientzia-fikziozko filma sakoneko maitasuna bilatzeko teknologia berrien era bileraren kritika da, eta gai hori bereziki interesatzen zaio zuzendari greziarrari.

*Fingernails* izan da aurtengo Sail Ofizialean lehiatu den lehen filma. Christos Nikou zuzendaria bakarrik agertu da bere pelikula aurkezteria. Hollywoodeko gidoilari eta aktoreen greba medio, zoritzarre ez da Donostiarra etorri antzezeletako bakar bat ere, ez Jessie Buckley, ez Riz Ahmed, ez Jeremy Allen White, ezta Luke Wilson ere.

Zuzendari greziarraren bigarren film luzeak Anna eta Ryanen arteko harremana kontatzen du. Teknologia berri eta eztabaidagarri batek erakutsi du bateragariak direla. Baino, hala ere, bikoteko bi kideetako batek zalantzak ditu, Anna ez dago ziur. Orduan, maitasuna ebaluatzen duen institutu horretarako lanpostua onartuko du. Bertan bere harremana frogatu nahi du. Gidoia Nikou berak idatzi du, Sam Steiner eta Stavros Raptis idazleekin batera.

Bere estreinako *Apples* filmean bezalaxe, zeinean amnesia-pandemia baten testuinguruan ezinezkoa zen erromantze baten berri eman zigun, maite-lanen atakak buruan dabilzkio oraindik ere. "Egia esan, oraindik ez dakit zer den maitasuna, aurkitzen saiatzen ari naiz. Denok bilatzen du gu, baina ez dakigu zertan datzan. Maitasuna mingarría izan daiteke, desero so sentiarazten zaitu, pelikulan islatzen den bezala. Maitasun fisiko eta maitasun-mina parez pare jarri ditut", aitor tu zuzendariak.

Benetako maitasuna azkazalen bidez detektatzen duen makina retro-futurista bat erakusten du pelikulak –izan ere, Anna protagonistak bere borondatez probatuko duena–, egungo teknologia berrien kritika gisa. "Mugikor ziztrin bat daukat, ez dut harreman onik teknologiarekin", azaldu du zuzendariak bere filmaren filosofiarekin bat eginez.

Bestalde, Nikou filmak zinema-aretoetan ikustera gonbidatzen ditu ikusleak. "Horretarako egiten ditugu filmak, ikusleak sentimendu magiko horren partaide izan daitezten", adierazi du.

Bere bigarren film luzeari eman dion amaiera baikorraz galduetzaizonean adierazi duenez, "beti dira irekiak, nahiz eta irribarre malenkoniksua marratzu nahi dudan. Annak berea benetako dela sentitu nahi du, eta amaiera baikorra izatea nahi izan dugu".

Genero distopikoari buruz ere hitz egin du, eta hurbiltasunaren alde egin du. "Batzuek zinema futurista eta urruna egiten dute, eta horrek ez du ikusleekin bat egiten", esan du. Zentzu honetan *The Truman Show* profezia bat izan zen, zinema-zuzendari bihurtera bultzatu ninduen filma".

Bere erreferentzia literarioei dago-kienez, Orwelleen '1984' –urte horretan jaio zen zuzendaria– eta Saramagoen 'Ensaio sobre a cegueira' nobelen eragina aitoratu du.

Eta ondorioz, filmean lortu nahi zuen tonuaz aktoreekin luze hitz egin zuela gaineratu du. "Ez zait gustatzen tonu bakarreko lanak egitea, zinemak komedia, drama eta erro-mantizismo apur bat izatea nahi dut, bizitzan gertatzen den bezala", esanez amaitu du.




Christos Nikou bere bigarren film luzea aurkezten.

JORGE FUENBUENA

#### Love hurts

The Greek filmmaker Christos Nikou is here in San Sebastián to present his second feature film *Fingernails* in the Official Section. It offers a critique of new technologies set against the backdrop of the search for true love, a question that Nikou is especially interested in. He confessed that he didn't really know what love was: "I'm still trying to find out what it is. It's the most elusive thing", but that he had wanted to make a comedy about technology and how this has changed the way we approach love in general. He said that what he was trying to transmit to the audience was the idea that searching for love was something we needed to work at on a daily basis, and that this could be painful and make you feel uncomfortable. He also spoke about science fiction as a genre and said that a lot of SF films try to create a distant futurist world that the audience often couldn't connect with, whereas he felt that conceptual stories resonate more when you create something that people have lived themselves. He had aimed to make a film with a timeless aesthetic that could serve as a prophecy, rather like *The Truman Show* which he revealed was the film that first inspired him to become a film director.




SPANISH SCREENINGS 2023  
ROMA 9-13 OCT  
MERCATO INTERNAZIONALE  
AUDIOVISIVO



Showcase



WIP



Remakes



Market Premieres



Next from Spain Comin'UP



Industry Talks

[spanishscreenings.online](http://spanishscreenings.online)